

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BILARKO UDALA

Alkatearen eginkizunak lehenengo alkateordeari eskuordetzea

Bilarko alkate-lehendakariak, alkatearen ekainaren 17ko 55/2026 Ebazpenaren bidez, hau ebatzi du:

LEHENENGOA.- Joana del Hoyo Fernandez lehen alkateordeari eskuordetzea alkatearen eginkizun guztiak 2026ko ekainaren 18tik uztailaren 31ra bitartean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 23.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

BIGARRENA.- Eskuordetzearen barruan daude zuzentzeko eta kudeatzeko ahalmena, bai eta hirugarrenei eragiten dieten administrazio egintzen bidez kasuan kasuko administrazio prozedurak ebaztekoa ere.

HIRUGARRENA.- Organo eskuordeak, gerora, eta betiere eskatzen zaionean, aipatutako epean egindako kudeaketaren eta emandako xedapenen berri eman beharko dio alkateari, eta erabaki garrantzitsuak izanez gero, alde aurretik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegiak 115. artikuluan xedatzen duenez.

LAUGARRENA.- Dekretu honen bidez eskuordea izendatzeko, organo eskuordearen onarpena behar da, eta ulertuko da isilbidez eman duela onarpen hori baldin eta alkateari ez bazaio eskuordetzearen kontrako adierazpenik idatziz aurkezten ebazpen hau jakinarazi ondorengo egunetik hasita hiru egun balioduneko epean.

BOSGARRENA.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da, eta horren berri emango zaio udalbatzari egiten duen lehenengo bilkuran.

SEIGARRENA.- Udalbatzari ebazpen hau jakinaraztea egiten duen hurrengo ohiko bilkuran.

ZAZPIGARRENA.- Ebazpen honetan berariaz aurreikusi ez den guttian zuzenean aplikatuko dira arau hauetan eskuordetzei buruz xedatutakoak: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegia, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsia.

Bilar, 2026ko ekainaren 17a

Alkate-lehendakaria
ENRIQUE PÉREZ MAZO